



ZERAINGO UDALA

HIRUGARREN OHARRA **iiii**

COVID 19- KORONABIRUSAREN ZABALPENA EKIDITEKO

2020-03-23

Ondorengo informazioa bidaltzen dizuegu herritarrei:

OSASUNA: osasun-alertaren ondorioz, Goierri-Urola Garaiko ESIk ematen digun osasun arreta berrantolatu du. Berrantolaketa horrek eragina du bai Zumarragako Ospitalean, eta baita gure lehen mailako arretako osasun zentroetan ere.

Ildo horretan, **aldaketa garrantzitsu baten berri eman nahi dizuegu:**

Gaurtik, martxoaren 23tik aurrera, lehen mailako arretari dagokionez, **kontsultategi txiki guztiak itxiko dira, baita Zeraingoa ere,** ematen den osasun-arreta guztia zentro batzuetan elkartzeko.

Hitzorduak kudeatzeko Beasaingo anbulategira deitu behar da.

(943027700)

HONDAKINAK: traste handien bilketa **ETEN** egin du Sasietak emergentzia egoera hau dagoen bitartean.

ZERAINGO UDALA